

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

499

1/2022 DEKRETUA, urtarrilaren 24koa, lehendakariarena, Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoko (PLE) presidente gisa, zeinaren bidez eskuordetzen baitira Pirinioetako Lan Elkartea Partzuergoa ordezkatzeko eginkizunak.

Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoaren estatutuen 7. artikulua arabera, partzuergoaren presidentetza partzuergoko kideetako batek betetzen du, txandaka, estatutuetan bertan ezarritako ordenaren arabera. Presidentetza horrek 2 urteko iraupena izango du, eta, salbuespeneko egoeretan, urtebetez luza daiteke, gehienez ere.

2021eko abenduaren 13an, Alpen (Cerdanya, Katalunia) egindako Osoko Bilkuran, partzuergoaren presidentetza Kataluniako Autonomia Erkidegotik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzea formalizatu zen; beraz, Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoaren presidentetza Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariari dagokio bi urtez.

PLEren estatutuen 11. artikulua arabera, idazkaritza nagusia da presidentetzaren ordezkari-tza PLEren Partzuergoaren Batzorde Betearazlean.

Lehendakariaren abenduaren 23ko 50/2021 Dekretuaren bidez, Mikel Antón Zarragoitia jauna izendatu zen Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoko idazkari nagusi.

PLEren estatutuen 8.1 artikulua ezartzen duenez, Partzuergoaren presidentetzaren eginkizunak izango dira PLEren Partzuergoaren ordezkari izatea edozein instantzia eta agintari publiko edo pribatuen aurrean, eta osoko bilkuretarako deiak egitea eta bilkura horien buru izatea. artikulua beraren bigarren apartatuak xedatzen duenez, presidentetzaren titularrak, hala badagokio, idatziz eskuordetu ahal izango dizkio PLEren Partzuergoaren ordezkariaren eginkizunak Idazkaritza Nagusiaren titularrari.

PLEren Estatutuen 20.1 artikuluaekin bat etorritik, Partzuergoak, administrazio-ahalak baliatuz, bere jarduna egokitu behar du Espainiako legedian administrazio publikoen administrazio-prozedura erkideari eta sektore publikoaren araubide juridikoari buruz xedatutakora.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoetako organoek administrazio bereko beste organo batzuei eskuordetu ahal izango dizkiete esleituta dituzten eskumenak, nahiz eta hierarkikoki mendekoak ez izan.

Administrazio-jardunean arintasun eta eraginkortasun handiagoa lortzeko, beharrezkoa da PLEren Partzuergoaren idazkari nagusiaren esku uztea ordezkari-tza-eginkizun batzuk.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoko idazkari nagusiaren esku uztea, EAEk presidentetza betetzen duen bitartean, PLEren Partzuergoaren ordezkari-tzatik eratorritako eginkizunak, eta, nolana ere, izaera mugatzailea izan gabe, honako hauek:

1.– PLEren Partzuergoko langileak kontratatetik eratorritakoak, kontratuak esleitu eta formalizatzaren ondoriozko egintza guztiak sinatzea barne.

2022ko urtarrilaren 31, astelehena

2.– PLEren Partzuergoaren bulegoen alokairu-kontratuak formalizatzetik eratorritakoak.

3.– PLEren Partzuergoak sinatzen dituen hitzarmenak formalizatzetik eratorritakoak.

4.– PLEren Partzuergoak Europar Batasunaren eta beste erakunde batzuen deialdietan eta, bereziki, POCTEFA programa operatiboaren kudeaketaren esparruan parte hartzetik eratorritakoak.

5.– PLEko Partzuergoko Zuzendaritzako titularrak bere kargua betetzeko atzerrira (Espainiatik eta Frantziatik kanpo) egin beharreko joan-etorrietarako baimenarekin lotutakoak, bai eta dagozkion opor eta baimenekin lotutakoak ere.

2. artikulua.– Dekretu honen bidez eskuordetutako eskumenak edozein unetan bereganatu ahal izango ditu organo eskuordetzaileak.

3. artikulua.– Xedapen honek emandako eskumenen eskuordetzaz baliatuz ematen diren ebazpen guztietan berariaz adierazi beharko da inguruabar hori.

4. artikulua.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko urtarrilaren 24an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.